



TEATRO  
ARRIAGA  
ANTZOKIA



## DoSEL proiektu europarra abian jarri da, 2025eko Esloveniako Drama Astean lehen DoSEL Nazioarteko Erakustaldia iragarritz

- Arriaga Antzokiak lehen jarduera horretan parte hartuko ez badu ere, parte hartze aktiboa izango du aurrerago DoSEL proiektuaren baitako beste ekimen batzuetan eta horren berri emango da unean-unean.
- Europar Batasunaren Europa Sortzailea programak babestutako DoSEL proiektuaren helburu nagusia Europako hizkuntza gutxituetan idatzitako dramaturgia sustatzea, itzultzea eta hedatzea da.

**Bilbon, 2025eko urtarrilaren 23a.-** DoSEL (Drama of Smaller European Languages) europar proiektua garapen betean dago. Joan den astean prentsaurreko bat egin zen Esloveniako Kranj hirian. Bertan, Esloveniako 55. Drama Astearen hautatzaile Alja Predan-ek eta Kranjeko Prešeren Antzokiko jarduneko zuzendari Rok Bozovičar-ek martxoaren 27tik apirilaren 12ra bitartean egingo den jaialdi horren programa aurkeztu zuten, zeinetan azken denboraldian Esloveniako antzokiek antzeztutako obra edo testu esloveniar batean oinarritutako emanaldirik arrakastatsuenak eskainiko baitira. Aurten, gainera, Esloveniako 55. Drama Astean lehen DoSEL International Showcase izango dute: jatorriz Europako hizkuntza gutxitu batean idatzi eta antzeztutako lau emanaldi aurkeztuko dira, ingelesezko eta eslovenierazko azpitoluekin. Zehazki, kosovieraz, bulgariaraz, malteraz eta katalanez egindako piezak izango dira, Kosovoko Antzoki Nazionalak, Ivan Vazov Antzoki Nazionalak, Teatru Maltak eta Bartzelonako Casa Beckettek produzitutakoak, hurrenez hurren.

Arriaga Antzokia DoSEL proiektuan parte hartzen duten zortzi antzokietako bat da, baina ez du presentziarik izango Esloveniako hitzorduan. Aurrerago, ordea, Arriagak protagonismoa hartuko du proiektuan, bai anfitrioi gisa, Bilbon ekimenean bat hartuz, bai Arriaga Antzokiaren izena eta euskara kanpora eramanez, atzerrian ikusi ahal izango den ekoizpen propio baten bidez. Xehetasunak aurrerago zehaztuko dira.

Esloveniako 55. Drama Asteko programari buruzko informazio gehiago hemen: [www.tsd.si](http://www.tsd.si)

«Europako hizkuntza itzulpena da». (U. Eco)



DRAMA  
OF SMALLER  
EUROPEAN  
LANGUAGES



## Europako dibertsitatea

Arriaga Antzokiak gogo handiz hartzen du parte proiektu honetan, zeinetan Europako dibertsitate kulturala sustatu nahi baita, esperientziak trukatzuz eta kontinente zaharreko beste antzoki batzuekin lankidetzan arituz, horiek ere hizkuntza gutxietan lan egiten baitute.

Hala, proiektu honetan honako kultura-gune hauek hartzen dute parte, Bilboko Arriaga Antzokiarekin batera: Presernovo gledališce Kranj (Eslovenia), National Agency for the Performing Arts (Malta), Croatian National Theatre in Zagreb (Kroazia), Foundation Estonian Theatre Agency (Estonia), National Theatre of Kosovo (Kosovo), "Ivan Vazov" National Theatre (Bulgaria) eta Beckett aretoa (Katalunia).



Informazio gehiago:  
Komunikazioa - ARRIAGA ANTZOKIA  
Jon Rozadilla Urrutia  
[comunicacion@teatroarriaga.eus](mailto:comunicacion@teatroarriaga.eus)  
[www.teatroarriaga.eus](http://www.teatroarriaga.eus)

